



MENDEBALDEKO SAHARA NORBERE BEGIEZ

Gregorio Eizagirre eta Mila Gil leaburuarrak Marokok okupaturiko lurraldean izan dira bertako egoera ezagutzen » 3

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteazkena
2009-07-01

VII. URTEA 1.742. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO




Frontoian izango da Garagardo Azoka; atzo egin zuten aurkezpena 70. hamarkadako itxurarekin. N. URBIZU

70. HAMARKADARA VII. GARAGARDO AZOKAREKIN

IRURA Etzi irekiko ditu ateak, 18:00etan, eta igandera arte egongo da zabalik; ikastolaren eraikin berria ordaintzeko bideratuko dute dirua 5

Presoen senideen laguntzak kentzea salatzeko kanpaldia

IBARRA Presoen senideek eta lagunek mozioa aurkeztu zuten atzoko bilkuran eta ez zen onartu 6



Atzoko bilkurako une bat. R. CALVO

Gomezek kargua utzi du eta Iturzaetak adskribatu gabe bezala eutsiko dio

TOLOSA EA utzi eta Alkarbide alderdi berriaren lerro ideologikoari heltzea erabaki dute biek 2



Atzoko jubilatuen egunean, herri kirolak izan ziren, besteak beste. N. URBIZU

Helduenak izan dira Asteasun, jaiak agurtzen azkenak,

Munduko Txapelketan ariko da Eneko Lasa

ALEGIA Espainiako Txapelketan brontzea lortu du; piezarik handiena arrantzatu zuen Turian 5

Arimaz Kamara Orkestrakoek emanaldia eskainiko dute Santa Klaran

Tolosa » Eduardo Mokoroa, Edward Elgar eta Joseph Haydn musikagileak izango dituzte gogoan, etzi

ERREDAKZIOA

Tolosako Arimaz Kamara Orkestrak Eduardo Mokoroa musikariari omenalditxo bat egin nahid. Izan ere, tolosarraren heriotzaren 50. urteurrena betetzen da orain. Honez gain, Edward Elgar musikagile ingelesa ere gogora ekarriko dute. Duela 75 urte zendu baitzen. Azkenik, omenduko duten hirugarren pertsonaia duela 100 urte hil zen Joseph Haydn austriarra izango da.

Emanaldia ostiral honetan, etzi izango da. Santa klara komentuko kaperan hainbat kantu entzun ahal izango dira 20:00etatik aurrera. Kepa Martinez de Albenizen zuzendaritzapean ariko dira Arimazekoak, musikagileen abestiak interpretatuz.

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Iruia. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdi: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzarar autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Erztaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

Gomezek kargua utzi du eta Iturzaeta zinegotzi adskribatu gabea izango da

Politika » Atzo goizean izandako Osoko Bilkuran bi erabaki hauen berri eman zuten; oraindik zehazteke geratu dira hainbat gauza.

ERREDAKZIOA

Tolosako Eusko Alkartasuna alderdiaren barruan hartutako erabakiak izan ziren atzoko Osoko Bilkurako hizketagai nagusiak. Alde batetik, Andoni Iturzaetak EA utzi eta Alkarbideren lerro ideologikoari heltzea erabaki ostean, Eusko Alkartasunak idatzi bat aurkeztu zuen Iturzaeta adskribatu gabeko zinegotzi gisa hartzeko. Bestalde, Josemi Gomez zinegotziak kargua uztea erabaki du eta hau jakinarazi zuten atzoko batzarrean.

Iturzaetak alderdia uztearen lehen ondorioak zeintzuk diren azaldu zuten atzoko Osoko Bilkuran. Idazkariaren hitzetan, adskribatu gabeko zinegotzia izatera igaroko da, eta EAKo taldeari zegozkion eskubideak galduko ditu. Esaterako, bulegoa, ardurua eta organu kolejiatua izatea. Hala ere, zinegotziak banakogisa zituen eskubideak izaten jarraituko du. Hurrengo Osoko Bilkuran erabakiko dute, egoera berriaren arabera, nola geratuko lirartekeen gauzak, esaterako ardurak.

Onintza Lasak Tolosako EAren izenean hitz egin zuen atzo eta lehenik eta behin, berriek dituzten erantzukizunen karguak hementik aurrera nola egingo diren argitzeke idatzi bat aurkeztuko dutela adierazi zuen. Bestalde, lasatasuna eta bermea eskainiko diela tolosarrei esan zuen. Bestetik, EAK aurkeztutako idatzian agertzen di-



Atzo goizean egindako Osoko Bilkuran izan ziren Lasa eta Iturzaeta; Gomez Elosegi ez zen bertan. HITZA

ren hitz batzuei erantzun nahi izan zien atzo Iturzaetak. Eta argi utzi, berak ez duela EAtik ihes egin, «ez baita atzoko interes batzuegatik hartutako erabakia, erabaki ideologikoa baiziki». Testu horretan, Tokiko Korporazioetan Transfugismoaren gaineko Jokabide Politikaren Kodeari buruzko Hitzarmena betetzea eskatzen dute EAKoek.

Iturzaetak agertu nahi izan zuen aldaketarena erabaki zaila izan dela, baina bere ideiei fidela izatea egokiago iruditu zaiola. Transfugismoaz hitz egitea lekuz kanpo dagoela uste du tolosarrak eta zinegotzi karguari heltzeko garaian hartutako konpromisoak betetzen jarraituko duela. Orain arte, Kultura eta festetako sailaren arduraduna izan da Iturzaeta. Hau bere garaian, EAJk eta EAK hartutako erabaki politiko baten ondorio izan zen. Orain, akordioa aldatu

denez, beste adostasun batera iritsi beharko dutela ere aipatu zuen Alkarbideko kideak.

Uztailaren 28an egingo da hurrengo Osoko Bilkura. Bitarte hogan, Eusko Alkartasunak eta Andoni Iturzaetak aurkeztu dituzten idatzien egiaztatzea nahiz beste datu batzuen egingo dute, eta orduan erabakiko da zein egoeratan geratuko diren ere. Jokin Bildarratz alkateak atzo adierazi zuenez, legediak finkatutako bideak jarraituko dute, eta orain arteko bidearekin antzekotasun handienak dituen irtenbidea bilatzen saiatuko dira.

Gomez en ordezkoa, erabakitzeko

Udal osaketan eragina duen beste erabakietako bat, Josemi Gome-

zen kargu uztearena da. Sei urtez Tolosako zinegotzi izan ostean, arazo pertsonalengatik, kargua uztea erabaki du.

Orain arte azoketako zinegotzi izan denak, idatzi bat aurkeztu du bere dimisioa aurkezteko. Atzoko Osoko Bilkuran eman zuten erabaki honen berri ere, eta atzotik indarrean dira bere erabakiaren ondorioak. Orain, EAK zinegotzi berria izango denaren kredentzialak eskatu beharko ditu Madrilan, kargua har dezan. Beraz, oraindik ez dute ezagutzera eman zein izango den Gomez Elosegiren tokia hartuko duena.

Hilaren 2an, Gomez Elosegik ere Gipuzkoako EAKo zuzendaritzaren hamabost lagunek sinatutako agiriarekin bat egin zuen, Alkarbideren ideologiarekin. Dena den, jakitera eman dutenez, beste zenbait arazo pertsonalengatik utzi du orain zinegotzi kargua.

E Erantzunak info

■ **EA galdua.** «Zein tristea EAren azkenaldiko ildo politikoa. Normala batek baina gehiagok beste bide bati hasiera ematea. EAren botoematea izan naiz urte askoan, bada galduek ikusten ditut. Animo Alkarbide osatzeko erabaki zaila hartu dutenei».

■ **Lasa Lasa.** «Onintza ez da ba oso kontentua egongo... Bi zinegotzik alderdia utzi dute, Tolosako EAKo afiliatuen gehiengo nabarmenak Alkarbide babestu zuten, bailara-ko herri ezberdinetan EAKo guztiak pasa dira Alkarbidera, bozka kopuruaren gainbera ikaragarria da... Nola liteke hain predikamentu gutxi duen Lasa andreak zuzendaritza inhaibeste urte irautea?».

■ **Emakume bere bakardadean.** «Denak traidoreak ote? Tolosadekoak Alkarbidera ia danak. Gi-

puzkoan beste hainbeste. Atxeki-pen berriak hego Euskal Herrian... etorkizun latza EArena».

■ **EAJko batek.** «Animo Alkarbide sortu dezutenoi. Nork ez zekien Gipuzkoako EAren gehiengo HBtik oso oso oso urrun zegoela. EAJ eta Alkarbide elkarlanean aritzea espero dut Euskadik bizi duen egoera espainolizatu ga indituzten. Animo Josemi, Andoni, Javito...».

■ **Animo.** «Argi dagona da Iturzaetaren zuzendaritza hobe zala EA segitzea, goxo goxo bere liberazio, despaxto eta guzti. Garai hauetan, erabaki honekin, hoi arriskun jarzteaz bera adierazten du behintzat. Animo mutil! erosotasuna ta ideologian artean bigarrena aukeratzeko ez da normala. Batek baino gehiok zutaz esandakoak jan beharko».

■ **Thinking.** «Beraz, herri honetan leku bat edo beste lanean ikusten ziren zinegotziak, Elosegi ta Iturzaeta, EA uzten dute. Eta herriari inork ezautzen ez dun, ta herriari ikusten ez den Lasak EA segitzea. Zein gaizki doan EA...».

■ **Peru.** «EA bidegurutze batean aurkitu izan da beti: PNV eta bere joera autonomistari men egin eta exerlekuan goxo goxo mantendu edo benetan herri honen burujabetzaren alde kokatu eta ezkertiar abertzaleen fronte garrantzitsu baten parte izan. Badirudi EAK bidearekin bidari eman diola lehentasuna eta hori albiste pozgarria dela esango nuke. Argi gelditu da PNVk daraman politikarekin ez dela urrutierapausurik etorriko eta bere burua independentista bezala izendatzen duen edonork egingo luke-

ena egin dute: PNVrekin autsi eta burujabetzaren alde kokatu. Gero-ra, hauteskundeetako emaitza eskasak ikusita eta Gasteizen ziztuzten exerlekuak galduta, atzera pausu bat eman eta Alkarbide delakoa osatu dute zenbaitzuk. Alkarbideri usain oso txarra hartzen diot nik! PNVren atzapar luzeak ere horren atzean ikusten ditut. Nere ustez EA bide onetik doa, bada garaia PNVren ezkerretara burujabetzaren eta konponbide demokratikoaren aldeko fronte nazional bat eraikitzeko. Alkarbideri ez diot inongo etorkizunik ikusten, PNVren txotxongilo hauek ez dute sinesgarritasunik! ta gure eskualdean gehienak Alkarbidera! honek adierazten du zer nolako jendea zegoen eskualdeko EA-n».

Gregorio Eizagirre eta Mila Gil leaburuarrak Mendebaldeko Saharan izan dira bi astez. Aspalditik buruan zuten bidaiaren bidez, hango egoera hobeto ezagutzeko aukera izan dute.

Errealitatea bertatik bertara

INIGO TERRADILLOS

Zalantzarik gabe leku edo lurralde bateko benetak egoera ezagutzeko modurik egokiena bertara joan eta norbere begiez guztiaz jabetzea izaten da. Horixe egitea erabakitzen joan ziren Gregorio Eizagirre eta Mila Gil leaburuarrak Mendebaldeko Saharara, hau da, Marokok okupatua duen lurraldera.

Tolosaldea Sahararekin elkarteko kide izanik, urte asko daramatzate lurralde honi lotuta, eta askotan izan dira saharar errefuxiatuen kanpalekuetan; baita liberaturiko lurraldean ere. Baina pausobatharatago eman nahi zuten. Hala, elkartek antolaturiko *Maiatza Borrokan* jardunaldien baitan egon zen hitzaldi batek animatu zituen bidaiari antolatzen hastera.

Marokotik Saharara

Ekaineko bigarren astean abiatu ziren Mendebaldeko Sahararantz. Euskal Herritik Espainiara egin zuten lehendabizi, eta ondoren Marokora, eta han Casablancatik Agadir-era. Tolosako lagun sahararrak lagundu zituen bidaiari antolatzen, eta bere familiako kideen etxeetara joatera gonbidatu zituen. «Oso garrantzitsua da benetan hango egoera ezagutu nahi baduzu bertako batekin egotea, eta gu uneoro saharar lagunaren sendiarekin izan gara», azaltzen du Eizagirrek.

Agadir beste edozein hiri turistiko bezala definitzen dute. «Merkatu handi batekin —Afrikako handiena diotenez—, hotelak eta bisitatzeko leku ugari ditu; merkatua da, batez ere erakargarria, denetarik topa baitezakezu han». Hiria goitik behera zeharkatu eta gero Sahararako bideari ekin zioten leaburuarrak.

Tan Tan hirirantz jo zuten, eta han ere saharar lagunaren familiaren kideak bisitatu zituzten. «Hiri honetakoak ez direla sahararrak ez eta marokotarrak diote, baina sahararren alde daude Maroko eta Sahararen arteko gatazkan», azaltzen dute. 70.000 biztanle inguruko hiria den arren, bertara iritsi eta segituan zabaldu zen hiri osoan bi euskaldun zebiltzala handiak; «Turismoa ez da oso ohikoa han, horregatik oso deigarria da gu bezalakoekin bisita; horretaz gain, Sahara geroz eta gertuago zegoela ere nabari zen, polizia kontrolak eta Marokoko ikurrak ugariagoak baitziren; Marokoren presentzia nabaria izatea da Gobernuaren helburua».

Tan Tan hirian zeuden egunetan Udaleko Hauteskundeak bizi-tu zituzten. «Hauek bazuten berezitasun bat, izan ere, hemen ez bezala, alderdi bakoitzak ikur berezi bat zuen, eta hau animalia bat edota gauza bat izan zitekeen; hori bai, ez ziren Saharako hauteskundeak, Marokokoak baizik, eta hemen bezala, batzuk abstentzioa eskatu zuten, hauteskunde demokratikoak ez zirela salatuz».

Mendebaldeko Sahararantz abiatu ziren Tan Tan hiria utzita, eta Smara hirian sartzearekin batera hasi ziren aldekata nabaritzen. «Polizia kontrol ugari zeuden hiri barrura sartzeko, eta hirian bertan ere, nonahi egiten genuen topo haiekin; gainera, han, batez ere, familiako kideek zizuten kaletik bakarrik ibiltzen utzi nahi».

Maroko eta Espainiaren jarrera

Smaraz gain Aaiun (Mendebaldeko Saharako hiriburua) ere ezagutu dute. Konturatu dira, esaterako, ez dagoela hain urrun liberaturiko lurraldea, «140 kilometrorara edo dago, baina hori bai, harresia eta milaka soldadu daude tartean, beraz, dirudiena baino urrutiago dago hura».

Hiri hauek ezagutzeko aukera izateaz gain, beraz, sahararrek salatzen dituzten gauza asko euren begiez ikusteko aukera izan dute. Hala, polizia etengabeko joan-etorriez gain, esaterako, ikusi dute aberastasun handia dagoela arrantzan, eta fosfatoa bezalakoarekin ere etekin handia ateratzen dutela; «Gauza horiek salatu nahi ditugu, izan ere, Aaiungo portuan egon ginenen barku eta arrain pila bat ikusi genituen, eta fosfatoa ere nola garraiatzen duten ikusi genuen; gatazka baten baitan dagoen lurralde batean ezin da hori egin, ez da legezkoa, eta hori salatu nahi dugu, bai Marokoren jokabidea, bai eta Espainiarena ere, bere utzikeria eta interesen ondorio zuzena baita hori guztia».

Gomendatzeko modukoa

Bi leaburuarrak horrelako bidaiari bat egitea gomendatzen die animatzen diren orori. Baina hori bai, «hango egoera ezagutzeko, bertakoekin egotea ezinbestekoa da, bestela kanpokoarekin soilik gertatzen zara».

Ezagutzeko geratzen zitzairen errealitatea, beraz, gertutik ikusi dute, eta horrela aspalditik buruan zuten bidaiari burututa, «oso gusturara» itzuli dira etxera.



Sahararrek Sahararen aldeko pintaketak egin eta segituan estaltzen ditu Marokoko polizia. G. EIZAGIRRE



Eszerrean marokoar arrantzaleak. Eskuinean fosfatoa garraiatzen portutik. G. EIZAGIRRE



Sahara Espainiaren pean egon zen garaiko etxebizitzak eta eliza bat. G. EIZAGIRRE



HITZA eta 'Berria' 'Oporrak bakean' ekimenarekin

I. TERRADILLOS

Datorren larunbatean iritsiko dira Bilboko Loiu aireportura 450 haur saharar inguru Tindufeko errefuxiatuen kanpalekuetatik. Euskal Herrian igaroko dute uda urtetik urtera errepikatzen den *Oporrak bakean* ekimenaren baitan. Eskualdeari dagokionez, 15 neska-mutil izango dira gurean aurtan, bertako familiekin, iraila bitarte.

Antolaketa laguntzen

Hala, urtetik urtera antolaketa errepikatzen den nahasmendua dela-eta aurtan ekimenaren antolatzaileek berrikuntza baten bidez

guztia errazago egitea aurreikusi dute. Izan ere, 450 haur hauek aireportura iristen direnean nahasmena oso handia izaten da, eta aurtan hori ekiditeko kolore desberdineko elastikoak jarriko dizkiete gaztetxoiei. Uda igaroko duen lurraldearen arabera kolore batekoa edo besteko kamiseta emango du haurrak, eta horretaz gain, herriaren izena ere jarriko du bertan.

HITZA-k eta *Berriak* antolaketa-ekin lagundu nahi izan dute, eta haurrentzako nahiz monitoreentzako elastikoak egin dituzte, modu honetan *Oporrak bakean* ekimenarekin ere bat eginez.

Iragarki laburrak

ALOKAIRUAN

■ **Etxebizitza.** Ikaiztegiaren pisua ematen dizu *Zurea da hitza* izeneko atalak. Gure webgunean sartu behar duzu horretarako, eta izen hori daraman atalean sartu. Argazkiak sartzeko aukera ere baduzu. Eskerrak, kexak, iradokizunak ere sar ditzakezu bertan. Ostiraleroko argitaratuko ditugu www.tolosaldekohitza.info

@ **Zurea da hitza.** Zure inguruko berriak sartzeko aukera ematen dizu *Zurea da hitza* izeneko atalak. Gure webgunean sartu behar duzu horretarako, eta izen hori daraman atalean sartu. Argazkiak sartzeko aukera ere baduzu. Eskerrak, kexak, iradokizunak ere sar ditzakezu bertan. Ostiraleroko argitaratuko ditugu www.tolosaldekohitza.info

Udako liburutegia gaurtik aurrera zabalik, Usabal kiroldegian

Tolosa » Irailaren 12ra arte zerbitzu hau izango dute aukeran Usabalgo erabiltzaileek, astelehenetik larunbatera.

ERREDAKZIOA

Duela urtebete ireki zuten Usabalgo kanpoaldeko gune eta, honekin batera, udako liburutegia. Iazko arrakasta ikusita errepikatzea erabaki dute. Hala, gaurtik aurrera liburutegi zerbitzua ipini dute Usabalen; heldu den irailaren 12ra arte, igerilekuaren denboraldia ixten duten arte, alegia, Usabalgo erabiltzaileek zerbitzua izango dute aukeran.

Astelehenetik larunbatera egongo da zabalik udako liburutegia, 15:00etatik 19:00etara bitarte. Eguraldi txarra egiten duenean ere zabalduko dutela zehaztu dute arduradunek; kasu honetan, kiroldegiko hitzaldietarako gela atonduko dute horretarako.

Hemen, 300 aldizkari eta liburu daude, eta jendeak mementoan har ditzake. Honela, alde batetik, egun bateko zerbitzua dago. Es-

kaintza honekin, interesatuek, han bertan dagoen liburu edo aldizkari bat hartu ahal izango dute, baina egun horretako 19:00ak baino lehen itzuli beharra dute. Bestalde, Aranburu jauregian edo Errotan dauden liburuak ere eska ditzazkete bertan. Baita itzuli ere. Zerbitzu berri honekin lotuta, hau indartzeko, Wi-fi sistemaren bidez, doan nabigatzeko aukera izango dute bertaratutakoek.

Zerbitzu anitzak gune bakar batean

Udako liburutegiko zerbitzu nagusia irakurketarea izango da. Hala, heldu nahiz haurrentzat egunkariak, aldizkariak, komikiak, eleberririk laburrak, turismoko gidak, liburuak, sukaldaritzari buruzko liburuak, ipuinak, komikiak, jolas-liburuak... izango dira irakurgai. Esan bezala, egun baterako eskura ahal izango dira.

Bestalde, mailegu zerbitzuaren bitartez irakurketa hori luzatu egin daiteke. Hau guztia udan ere irakurzaletasuna bultzatze aldera egin dute.

Uztailaren 15ean, ipuin kontaketa

Baina udan gaude eta etxeko txiki-ekimez zitateko oporraldiaz gozatzeko hainbat eskaintza ere egingo du udako liburutegiak. Hala, heldu den uztailaren 15ean, asteazkenarekin, ipuin kontaketa berezia izango da Usabalgo solairumean bertan. 18:00etatik aurrera 4 eta 8 urte bitarteko umeentzat zuzendutako *Xantal Pirxel* kontaketa izango da entzungai.

Honetaz gain, margoak eta mahai jokoak ere eska diezaietke gazteek liburutegiko arduraduneri, arratsaldean zehar jolastu ahal izateko.



Helduenen eskutik agurrik beroena

ASTEASU » Herenegun Pedro Deunaren eguna izan bazen ere, Asteasun egun bat gehiago gehitu nahi izan diete festei eta, horrexegatik, atzokoan ere izan zen zer gozatua herrian. Bero sargori baten laguntzaz jubilatuen eguna ospatu zuten; mezaren eta hamaiketakoaren ondoren, jubilatuek ez ezik haur eta gazte ugari ere hurbildu zen plazan jarritako karpara. Bertan herri kirol erakustaldia izan zen Jokin Alkizalete, Joseba Otaegi, Ugaitz Mugerza eta Ander Erasun aizkolari

eta Aimar Irigoien eta Izeta II harrijasotzaileen eskutik. Kirolariak baino beroa izan zen protagonista karpa barruan. Aurkezleak umore puntua jarri zuen emandialdiari, kirolari eta ikusleen izerdiak hizpide. Ondoren, eguneko protagonistak, hau da, jubilatuek, mahaiaren bueltan elkartu ziren bazkaltzera Telleria eta Zeberio bertsolariez eta Xapre eta Zaharra trikitilariez lagunduta. Aurtengo San Pedro jaiei Laketa taldearen erromeriak eman zien amaiera. N. URBIZU

» HAINBAT DATU

- **Zer.** Udako liburutegia
- **Non.** Usabalgo solairumean; eguraldi txarra izanez gero, kiroldegiko hitzaldietarako gela.
- **Ordutegia.** Astelehenetik ostiralera, 15:00etatik 19:00etara.
- **Zerbitzuak.** Irakurketa (helduentzat nahiz haurrentzat); liburutegiko txartela; maileguak; Wifi; ipuin kontaketa; margoak eta mahai jokoak



Gaurtik aurrera liburutegia erabili ahaliko dute Usabalgo solairumean. E. EZEIZA



... Eta gaur, ikuskizun nagusia

TOLOSA » Maite Francok eman zion hasiera atzo Amaroiko Antzerki Asteari. Kalean egin zuen saioa ipuin-kontalariak. Ume asko bildu ziren emanaldira. Hala ere, antolatzaileek goraiatu dutenez, gaur Nanny Cogorno argentinarak eskainiko duen *Lunatik* emanaldia izango da aurtengo ikuskizun nagusia. Saio hau

19:00etan izango da. Helduentzako saioak ostiralean izango dira, 23:00etatik aurrera. Aurretik, dena den, afaria antolatuko dute. Hau txosnetan izango da, eta bertara joan nahi duenak Ogi Berri okindegian erosi beharko ditu txartelak, 19 euroan. Gainera, astean zehar, makilaje eta globofexia tailerrak izango dira. I.T.

Asteburuko Garagardo Azoka 1970. hamarkadan girotuko dute

Irura » Kilometroak 08ekin abiarazitako eraikin berria ordaintzeko dirua lortzea izango da azokaren helburua.

ENERITZ IRAOLA

Irurako Garagardo Azokaren VII. edizio honetan, 1970. hamarkadara salto egin nahi izan dute antolatzaileek. Giro hori lortzeko garai hartako arropekin mozorrotuta joateko gonbita luzatu zaie herritarrei eta auto historikoen erakusketa ere izango da frontoi inguruan. Etzi 18:00etan irekiko ditu ateak. 14 garagardo mota, gorri zein hori, dastatzeko aukera izango du igandera arte pilotalekura inguratzen denak.

Hala adierazi zuten atzo eguerdian Irurako Ikastola berriaren atarian egindako aurkezpenean Marimi Ugalde alkateak eta Joseba Urretabizkaia eta Josetxo Perez ikastolako gestio batzordeko kideek. Kilometroetan lortutako diruarekin eraikin berriaren ideia aurrera eramatea lortu bazuten ere, hau ordaintzez amaitzeko diru gehiagoren beharra dute. Horretara bideratuko dute VII. Garagardo Azokan lortuko duten diru guztia.

Udalaren eta Ikastolaren artean antolatutako ekimena da; herritarren laguntza izaten dute baina horretaz gain, kanpotik jan-edanak dastatzera etorriko direnen beharra ere badute. Horregatik, Marimi Ugalde alkateak esan bezala, «Garagardo Azokara etortzea gonbidatu nahi ditugu bai herritarrak eta bai kanpotik etorriko direnak ere, kontsumitzeko eta Ikastolaren gastuari aurre egin ahal izateko».



Garagardo Azokako antolatzaileek festarekin bat eginez 70. hamarkadako itxura hartu zuten. N. URBIZU

rrak eta bai kanpotik etorriko direnak ere, kontsumitzeko eta Ikastolaren gastuari aurre egin ahal izateko».

Garai bateko festara saltoa

Aipatutako mozorroen ideia z gain, Gipuzkoako 600 zale elkarteak modu berezian lagundu du aurtengo garagardo azokan. Garagardo batzuek hartu ondoren, duela 40 urte ohikoak ziren autoak ikusteko aukera izango da larunbatean 19:30etik aurrera. Pilotaleku ingurura hainbat auto zahar ekarriko dituzte.

Horren ostean eta egun horretan mozorroturik joateko deialdia egingo dagoela kontuan izanik, playback-a eta karaokea antolatu dute gaueko hamaiketan. Nahi duen orok parte hartzeko aukera

izango du, saioak aurretik prestatu dituztenek eta baita momentuan bertan ausartzen direnek ere. 1970. hamarkadako pentsamendu

Larunbatean duela 40 urte ohikoak ziren autoak ikusteko aukera izango da pilotaleku inguruan

Herritarren gehiengoak modu batera edo bestera laguntzen du asteburu honetako azokan

honen adibidea atzoko prentsaurrekoan ikusteko aukera izan zen, antolatzaileak beraiek ere garaiko jantzi eta pelukekin bertaratu baitziren.

Afari lege «bikaina»

Bertan afaltzeko aukera ere bada, zoazen orduan zoazela. 400 eserleku inguru daude eta horretaz gain barran zerbitzatuko dute edaria. Hiru egunetan afaldu daiteke bertan eta urtero hain arrakastatsuak diren jakiak dastatzeko aukera izango da. Hauak dira jan daitezkeenak: bakailoa tomatearekin, Irurako txistorra, saltxitxak (Frankfurt edo Bratwurst), krocketak, ukondoa, eta postre moduan, Irurako pastelxoak, gazta eta irasagarra.

Irurako Ikastolaren eraikin berria ordaintzea da helburua eta horregatik, herritarren gehiengoak modu batera edo bestera laguntzen du azokan: tabernan zerbitzari gisara, sukaldean, montaketan, haurrak beraiek egindako pitxiak

» HAINBAT DATU

- **Irekiera eguna.** Etzi, 18:00etan.
- **Lekua.** Irurako frontoia.
- **Azken eguna.** Igandea, 00:00ak arte.
- **Menua.** Bakailoa tomatearekin, Irurako txistorra, saltxitxak (Frankfurt edo Bratwurst), krocketak, ukondoa, Irurako pastelxoak, gazta eta irasagarra.
- **Garagardoak.** Guztira 14: Murphys, Guinness, Afligem, 3 mota Paulaner, Newcastle, Fosters, San Miguel, Grimbergen double tostata, Selecta, 1516, Kronenbourg eta San Miguel 0,0.
- **Berezitasunak.** Larunbatean, (mozorroturik joateko gonbitea) 19:30 garaiko kotxeen erakusketa eta 23:00etan playback-a eta karaokea.
- **Antolatzaileak.** Irurako Ikastola eta Irurako Udala.
- **Laguntzaileak.** Kutxa, Euskadiko Kutxa, San Miguel garraioak, Zelai, Share Elkarte eta Gipuzkoako 600 zale elkarteak.

salzten... Herritarren behar bati aurre egin nahi izan zaio. Eraikina egun aurretik, Irurako haurrek inguruko herrietara joan behar izaten baituzten beren ikasketak amaitzeko.

Bukatzeko, Irurako alkateak eskerrak luzatu zizkien alde batetik, hiru egun hauetan laguntzeko prest agertu direnei, eta bestetik bertara kontsumitzera gerturatuko direnei. «Horrela ikastola ordaintzen lagunduko dute».

«Urtero zerbaiten alde»

Duela zazpi urte hasi ziren garagardo azoka antolatzen, baina beti helburu zehatz bat izan du. Lehenengo urtean, esaterako, *Berria* egunkariko akzioak erosteko antolatu zuten. Honen arrakasta ikusita, urtero antolatzeari ekin zioten.

Berriz ere Mundukorako sailkatu da Eneko Lasa

Alegia » Espainiako Txapelketan brontzea lortu zuen; piezarik handiena arrantzatu zuen Turian (Herrialde Katalanak).

ERREDAKZIOA

Eneko Lasa alegiarrak arrantzako XI. Espainiako Txapelketan hirugarren postua lortu du, brontzea. Honen ondorioz, datorren urteko Munduko Txapelketan aritzeko txartela lortu du berriz ere. Valentziako (Herrialde Katalanak) Turia ibaian aritu zen, goizean Bugarra esparruan eta arratsaldean Villamarchante esparruan, hain zuzen.

Guztira 46 pieza arrantzatu zituen Lasak, eta horrez gain, 39,3 zentimetroko amuarraina arran-



Eneko Lasak pieza handiena harrapatu zuen Bugarra esparruan. HITZA

tzatu zuen, lehiaketako pieza handiena izanik.

Enekorekin batera beste euskaldun bat ere sailkatu da Munduko Txapelketan aritzeko: Diego Ma-

teo, seigarren egin baitzuen hautatuen mailan (Enekok hemen ere hirugarren). Uztaileko hirugarren astean Txekiara joango da alegiarrak Mundukoan aritzeko.



Marc Adsuarek eta Gerard Gilek lehen eta bigarren postua lortu zuten. HITZA

Kanpaldia, presoen senideen laguntzak kendu izana salatzen

Ibarra » Atzo goizean izandako ohiko batzarrean euskal presoen senide eta lagunek mozioa aurkeztu zuten eta ez zen onartu.

REBEKA CALVO

Atzo goizean Ibarra Udalbatza osoaren ohiko bilkuran herriko presoen familiarterako eta lagunen mozioa eztabaidatu zuten, beste hainbat punturen artean. Bertan, besteak beste, orain dela urte bete herriko preso bideratutako dirulaguntzak kendu izana salatu zuten. Euskal preso senide eta lagunek, era berean, euskal preso eskubideen alde herrian bildutako 700 sinadurak ere aurkeztu zituzten mozioarekin batera.

Mozioaren bozketa egiterakoan EAJ eta EAKo kideak abstenitu egin ziren, izan ere, alkateak, Txelo Romeok, esandakoaren arabera, eurek aurkeztu behar zuten mozioa «osatuagoa» zegoen. EAJk eta EAK aurkeztutako mozioan «tortura, ilegalizazioa eta orohar, pertsona eta higiezin guztien kon-

trako eraso bortitz guztiak» gaitzetsi zituzten. Era berean, «giza eskubideen» alde daudela eta herri honek bizi duen gatazkarekin amaitzeko erabakitzeko eskubidearen alde egingo dutela ere esan zuten. 2006. urteko urriaren 6an Udalean hartutako konpromisoak ere ekarri zituen gogora Romeok: «Presoen gerturaztea, oinarriko giza eskubideen errespetua, presondegi-politika EA Era transferitzeko beharra» eta abar. Mozio hau Udalbatza osoak onartu zuten PSE-EEko kideak izan ezik.

Diru-laguntzak

Behin mozioak irakurrita osoko bilkurara gerturaturako preso familiarterako diru-laguntzak zergatik kendu dizkieten galdetu zioten Udalbatzari —Bretoniako Renesko espetxean dagoen Maite Aranalde eta Leonekoan dagoen Goar Jimenezek ari ziren—. Bai Aranalde eta baita Jimenez ere Ibarra errollan daudela gogorarazi zitoten bere familiarterako alkateari. Eta Goar Jimenezen kasuan, gainera, Leoneko espetxean dagoela nabarmendu zuten, izan



Euskal preso familiarterako eta lagunek izan ziren atzo goizean, Ibarra Udaleko ohiko bilkuran. R. CALVO

ere Romeok Donostian espetxeratu zegoela uste baitzuten.

Horiek horrela, Udalbatzako kideak «burbuila» batean daudela esan zieten senideek. «Hau guztia konpontzeko eta akordio batera iristeko borondatea duzue ala ez?» galdetu zieten han bildutako preso lagun eta senideek Udalbatzako kideei. «Nik orain ezin dizuet erantzunik eman, gure artean bildu, eztabaidatu eta beste batean emango dizuet erantzun bat», erantzun zien alkateak. Azkenean, alkateak aste batzuk barru senide eta lagunekin berriz ere biltzeko konpromisoa hartu zuen.

PSE-EEren mozioa

Ohiko batzarrean PSE-EEko kideak aurkeztutako beste mozio bat ere izan zuten hizpide. Mozioan pasa den ostiraleko ET Aren azken

ekintza gaitzetsi zuen, non Eduardo Puelles polizia-inspektorea hil zuten.

Udalbatzako kide guztiak onartu zuten mozioa eta preso senide eta lagunek, euren aldetik, mozio hori irakurtzen bazuten eurek ere beste mozio bat sartu nahi zutela esan zuten; orain bi hilabete desagertutako Jon Anzaren inguruko, hain zuten.

Azkenean, azken mozio hau ez zuten eztabaidatu.

Kanpaldia herriko plazan ostirala bitarte

Atzoko ohiko batzarrean emaitza ikusita preso lagun eta senideek «indarrak bildu eta konpromiso zehatzak exijitzeko» kanpaldi bat egingo dute ostirala bitarte herriko plazan. «Guretzat hitzak ekintzari lotua egon behar du. Presoen esku-

bideen alde azaltzen badira, beraien jardura praktikoak norabide horretan joan beharko luke. Eta, guxtienez, iazko uztaile bitarte Ibarra Udalbatzak egin zuten bezala, preso senideei diru laguntzak eman beharko lizkieke euren bidaierako», nabarmendu dute.

Kanpaldia atzo arratsaldean hasi zuten eta ostirala arte egongo dira plazan. Egun hauetan zehar ekitaldiak ere aurreikusi dituzte: gaur propaganda banaketa egingo dute, bihar osteguna kotxe karabana egingo dute eta ostiralerako manifestazio deialdia egin dute. Manifestazioa 19:30ean abiatuko da plazatik *Euskal presoak Euskal Herrira, hitzez eta ekintzez* lemapean.

Manifestazioa bukatuta kanpaldia desmontatutako dute.

Jon Goio atxilotu dute Lapurdin

Tolosa » Astelehenean atxilotu zuten beste hamar pertsonekin batera, tartean Lizartzako Joseba eta Ibai Agirrebarrena.

ERREDAKZIOA

Jon Goio tolosarra da astelehenean Frantziako Poliziak atxilotutako hamaikalagunetakoa. Atxilotuak, hala ere, ez zuten atzorarate jakinarazi, izan ere Goioek gaur

egiten du lan eta horregatik inork ez zuten honen berri izan atzo arte. Militante abertzaleak urteak zehar zaramatzen Lapurdin bizitzen. Tolosarako 2008an Auzitegi Nazionalaren aurrean aurkezteari uko egin zion eta ondorioz, epaitegiak bera atxilotzeko euroagindua zabaldu zuten.

Larunbatean hasitako operazioa

Atxilotetak larunbatean hasi zituen Polizia frantsesak Kanbon

(Lapurdin) Xan Beyrieren atzematearekin eta orduztik hamaika lagun atzeman dituzte Lapurdin eta Nafarroa Beherean.

Goiz gain beste bi atxilotu ere eskualdekoak dira; Joseba eta Ibai Agirrebarrena aita- seme lizartzarrak. Atxilotetak salatzen elkarretaratzea egin zuten Lizartzako plazan atzo.

Atxilotetak, ustez, 2007 eta 2009 urteren artean interes turistikoko guneen aurka izandako erasoak direla-eta egin dituzte.

Laburrak

35-40 galdu zuten Zeberio III.ak eta Etxeberria III.ak

ELDUAINA • Astelehenean San Pedro Eguna izan zen eta hori dela-eta herri askotan erremonteko partida bereziak izan zituzten, tartean Donezteben (Nafarroa) eta baita Orion ere. Elduaingo Zeberio III eta Etxeberria III aritu ziren Doneztebe bertako Uterga eta San Miguel gazteen aurka eta azken hauek irabazi zuten 35-40. Asteleheneko partidaren San Miguelek bere jokamoldea gailendu zuen Etxeberria III.aren kontra atzealdean.

Herri batzarra egingo dute bihar, 19:00etan

ANOETA • Anoetako ezker abertzaleak bihar osteguna, hilak 2, 19:00etan udaletxean herri batzarra egingo duela jakinarazi nahi izan die herritar guztiei. Batzarrean bi gai izango dituzte hizpide: ikasturte politikoaren balorazioa eta aurrera begira jarraitu beharreko lidoak. Herri batzarren leloa *Independentziaren bidean aldaketa politika + soziala* ere izango dela argitu dute ezker abertzaleko kideek.

Hilberria



KARMEN ETXANIZ MENDIZABAL

(Errekalde baserria)

Urteetan zehar indarra eta maitasuna erakutsi eta eman diguzu.



Hileta elizkizunak GAUR izango dira, arratsaldeko 19:30ean, Azpeitiko Soresuko Sebastian Deunaren parroki elizan.

Senarra, seme-alaba eta bilobak

AZPEITIA
2009ko uztailearen 1a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Herri Arteko finala ikustera joateko autobusa dohainik

Leitza » Nafarroako finala hilaren 5ean, igandean, jokatuko dute Leitza eta Iruñeak Labrit pilotalekuan.

ASIERIMAZ

Nafarroako Herri Arteko Pilota Txapelketaren finala Iruñeko Labrit pilotalekuan jokatuko dute hilaren 5ean, igandean. Bertan etxeko taldea eta Leitza aurkeztuko dira 09:30ean. Orduhorretan hasiko baita alebinen partida, hau da,

Aurrerako Jon Lezea-Ander Eskudero bikoteak Okiñena-Mariezkurrenaren aurka jokatuko dutena.

Ondoren infantilen txanda iritsiko da: Anartz Olano-Mikel Hermandorenak Juanena-Kondon edukiko dituzte aurkari bezala.

Jubeniletan Jaunarena anaiek jokatuko dute, Soto-Artuch-en aurka eta seniorretan, Asier Garzia-Mikel Iriartek Olangua-Okiñena edukiko dituzte aurrean. Azken partida hau jokatu ostean, irabazlea nor den jakingo da: Leitza ala Iruñea.

Autobusa eta bazkaria

Aurrera KEK egun berezi honetarako autobusa antolatu du. Doan izango da joan etorria eta bazkaria egiteko aukera ere egongo da Iruñeko Guratz Mendi Elkarteak.

Autobusa 08:30ean irtengo da Leitza frontoitik. Bazkariaren prezioak berriz ondorengoak dira: helduena 15 euro eta haurrena 10 euro.

Autobuserako eta bazkarirako izena eman nahi dutenek, ostirala baino lehen edukiko dute horretarako aukera Maimur eta Astitz liburudendetan.

Aresoko taldeak hirugarren postua lortu du 600 kilokoan

Sokatira » Euskal Herriko Lur Gaineko Txapelketaren lehen jardunaldia jokatu zuten larunbatean Billelan (Gipuzkoa).

ERREDAKZIOA

Goiberri A taldeak lortu ditu Euskal Herriko Sokatira Txapelketako lehen 6 puntuak 600 kiloko lehen jardunaldian.

Hirugarren postuan berdinketa Iragan larunbatean jokatu zen Lur Gaineko Txapelketa Billelan (Bizkaia). Bertan, txapelketa osoan bezala, Erandioko taldea jaun eta jabe izan zen, tiraldi guztiak irabazi zituelarik.

Bigarren Gaztedi sailkatu zen. Hirugarren posturako lehian, ordea, hiru taldek parra egin zuten; hots, Mutrikuk, Aresok eta Goherri Ak. Aldiz, Getxo seigarren izan zen berriro.

Rekondo finalean, Olano salbu

Leitza » Nafarroako Bigarren Mailako Aizkolari Txapelketaren kanporaketan bi leitzar aritu dira lanean.

ERREDAKZIOA

Pasa den larunbatean jokatu zen Donezteben Nafarroako 2. Mailako Aizkolari Txapelketako Kanporaketa.

Kanporaketako 13 aizkolariak hiru txandetan banatuta aritu zi-

ren: lehenengo txandan Jon Rekondo (Leitza), Daniel Vicente (Otsagi), Xabier Mindegia (Beintza Labaien), Jesus Etxeberria (Beintza Labaien) eta Arkaitz Olano (Leitza) lehiatu ziren.

Bigarren txandan Patxi Mindegia (Zubieta), Oihan Larretxea (Bera), Luis M^a Belarra (Doneztebe) eta Jon Telletxea (Beintza Labaien) eta hirugarren txandan, Juan Jose Erdozia (Etxarri Aranz), Sergio Mandacen (Garralda), Xabier Ariztegi (Etxalar) eta Juan Telletxea (Doneztebe).

Egin beharreko lana, bi kanaeriko eta 60 ontzako enbor bat ebakitzea zen.

Rekondo nagusi, Olano 8.

13 aizkolarien artean onena eta azkarrena Jon Rekondo izan zen. Bigarrenari, Daniel Vicenteri, 24 segundo atera zizkion leitzarrak. 3. Patxi Mindegia gelditu zen, 4. Oihan Larretxea eta 5. Xabier Mindegia. Bigarren leitzarra, Arkaitz Olano, 8. postuan gelditu zen eta mailariustea lortu zion. Finala berriz lehen bostek jokatuko dute.




«Egun ederra» Senda Viva parkean

ARESO » Guraso Elkarteak antolatuta, aresoarrak Bardeetan dagoen Senda Viva parkera joan ziren iragan larunbatean. Bertan «egun ederra» pasatu zuten, «aukeran motzegia». Senda Vivara 11:30ean iritsi ziren, hamaiketako egin ondoren 12:00etan sartu ziren parkera: «Eguraldi bikaina. 30 gradu inguru, ongi egoten zen. Haur txikienek uretako atrakzioetan pasa zuten egun gehiena (uretako laberintoan, haurtxoen

ontzietan, karramarroak harrapatzen, zalditxoetan...). Handiagoak ausartagoak izan ziren eta *Gran tirolina* delakoan ibili zenik ere egon zen. Beste batzuk *Caida Libren*... Bertako animaliak ere ikusteko aukera izan zuten batzuk, beste batzuei ordea ez zigun denborarik eman... Gauza asko eta ezin denak 6 orduetan ikusi!». Egun pasa egin ostean Aresora 20:00 aldera iritsi ziren. GURASO ELKARTEA

Haurrak eta ura, arrakasta ziur

LEITZA » Abian dira Udako Tailerrak eta Haur Txokoa *Udan ez gelditu etxean* lelopean. Atzokoan, Aire, aire! ekimenean, haurrak urarekin jolasean ibili ziren Erleta eskola inguruan. Udako giroan murgiltzeko eta eskola amaiera ospatzeko antolatu dute hilaren 3ra bitarte Aire, aire! egitasmoa. Haurrek pozarren hartu zuten ideia. A. IMAZ



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxe.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetaldia: 687 410 022. anoetaldia@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldeia: 687 410 118. leizaldeia@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Tolosa.** Sanjoanen balantze bilera 19:00etan Kultur etxean.
■ **Tolosa.** Ekaina eta uztaileko zine bonuak salgai Leidor aretoan 11:00etatik 13:00etara, 17:00etatik 19:00etara eta saioen aurretik.

Irteerak

■ **Tolosa.** Hilaren 13tik 19ra La Alberca-ra (Salamanca) irteera antolatuta du Harizpe jubilatuek. Izen-ematea, elkartean (pentsio osoa 257 euro bazkideek eta 262 euro ez bazkideek). Halaber, hilaren 10erako, Iruñeko San Fermín jaietara irteera antolatuta du elkarrekin, Blanca de Navarra hotelarekin bazkalduz. Izen-ematea, elkartean (33 euro ez bazkideek eta 30 euro bazkideek).
■ **Tolosa.** Udagazteko irteerak: hilaren 9an Donostiako Santa Klara irlara, hilaren 16an Olaberriako Karts zirkuitura, hilaren 18an egun pasa Mutrikun eta Spraykada graffiti festan parte hartu eta hilaren 22an Lekunberriko kirol abentura parkea. Izen-ematea, Topagunean.
■ **Tolosa.** Hilaren 12rako eskalada irteera antolatuta dute Oargik eta Topaguneak. Informazioa: www.zazpitantriangulon.com helbidean.

Mendi irteerak

■ **Tolosa.** Pirinioetara irteera antolatuta du Alpino Uzturre elkarrekin uztailearen 4 eta 5erako, Ardiden (2.988 m) eta Bernat Barrau (2.793 m) mendiak igoz. Izen-ematea, elkartean (Gudari 5. 943 652789, alpinouzturre@hotmail.com).

Ikastaroak

■ **Tolosa.** Tailerrak gazteentzat: hilaren 10ean bitxiak egitea, hilaren 14an henna, hilaren 24an graffiti, hilaren 15ean filma proiektatuko dute eta 17an merendola eta karaokea. Izen-ematea, Topagunean.
■ **Tolosa.** Zuzentzat eskulan denda, udarako eskulan ikastaroak antolatuta dituzte. Taldeak umeei nahiz helduentzat irekiak daude. Izen-ematea denda (Gernikako arbola, 4) edota 676140622 telefonoan.
■ **Tolosa.** Soldadura, mekanizatura (torno, fresadora, taladro edo CNC) eta ostalaritza ikastaroak antolatuta ditu Peñasal fundazioak datorren ikasturterako 16 eta 18 urteko gazteentzat, 2.000 ordu-

koak (500 orduko praktikak). Izen-ematea, fundazioan (Usabal industriagunean).

■ **Tolosa.** TAFEK arraun ikastaroak antolatuta ditu hiru hamabostalditan: bi uztailean eta bat abuztuan. Izen-ematea, 943 536400 telefono zenbakian.

Kirola

■ **Tolosa.** Santamañako IX. Igoera korrika uztailearen 12an 10:30ean (7 kilometro). Izen-ematea, 943 696896 eta 943 693400 telefono zenbakietan.
■ **Tolosa.** Abuztuaren 1etik 13ra Santiago Bidea bizikletaz kostatik, Tolosatik abiatuta, kiroldegietan lo eginez eta otorduak jate-txeetan eginez. Izen-ematea, 687 568258 (Fernando) eta 664 129216 (Luis M.) telefonoetan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 670128.
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.



Urte askoan!

Amaiur. Herenegungo partetik bost muxe goxo familia guztiaren partetik.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak
ezkontzak - jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZaren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZaren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

A Agurrak



Zorionak!

Aitor! Laster zarete gurekin, maite zaituztegu.



Zorionak!

Andoni eta Aitor! Amnistia gertu da. Aupa zuek!



Zorionak!

Aitor. Eutsi gogor eta etorri berriro hondartzara. Lizartzako familiaren partetik.